

BASAUNDI ORIA ANTIXISU

AUZOZ AUZO, PAUSOZ PAUSO

DATA: Martxoak 22

ORDUA: 19:00-21:00

PERTSONA KOPURUA: 22 (15 emakume/ 7 gizonezko).

Bilera hasteko, auzoz auzoko lehengo bileren balorazio txiki bat egin da, etorri direnei bertan egindakoa gogorarazteko eta hurbildu den jende berria kokatzeko.

Lehenengo bilerak bukatutakoan, parte-hartzeko departamentuak egiten duen balorazioa oso positiboa da. Kontuan izanik planteatu den dinamika berria dela, auzotarren erantzuna egokia eta parte-hartzailea izan dela uste da.

Asistentzia aldetik, 15-50 pertsona agertu dira bileretara. Kopuruak auzoaren arabera ezberdinak izan dira; guztira, 184 pertsonak parte hartu dute.

Guztira, 278 gabezia, kezka eta proposamen jaso dira. Auzoetan, gabezia komun batzuk atera dira; esate baterako: txakur-kaken arazoa, garbiketa, komertzio txikiaren sustapena...

Zehazki, auzoko datuak honako hauek dira:

- 37 pertsona hurbildu ziren bilerara.
- 14 emakumezko eta 23 gizonezko.
- 52 proposamen jaso ziren.

BILERAREN HELBURUAK:

Lehenengo bilera gabeziak, kezkak eta proposamenak jasotzeko izan bazen, bigarren bilera hau ideia horiei lehentasuna emateko izan da. Udalak horren arabera lanean hasteko asmoa du. Bigarren bileretara joatearen garrantzia da bertan lehentasunak ezarriko direla.

Lehenengo bilerako gabeziak, kezkak eta proposamenak 3 multzotan sailkatu dira:

Berdea: Udalak kompetentzia osoa du, eta horiei epe motzean (urtea amaitu arte) erantzun bat ematera konprometitzen da. Erantzuna ez da zertan exekuzioan bakarrik ulertu behar. Batzuk aurrekontu eta lanketa gutxiko gaiak dira, berehala egitekoak. Beste batzuk, ez hain berehalakoak. Horien artean, auzolanean egitekoak aurkituko ditugu.

Laranja: Udalak kompetentzia osoa du. Baina, proiektuaren tamainagatik, ezin du berehala erantzun. Laranja sailkatutako gaiak landuko dira, eta haien artean lehentasunak ezarriko dira. Aurrekontu bat eskatzen du, eta lanketa sakona. Lanketak herritarrekin HPHLak sortuz egin daitezke, eta prozesuaren 3. fasean aurkeztuko lirateke. Bertan, udalak diru-partida finko bat erreserbatu beharko luke, eta auzotarrek erabaki beharko lukete zein proiektu egingo diren. Horrela, datorren urteko aurrekontuan sartuko lirateke eta datorren urtean gauzatuko.

Gorria: Udalak ez du kompetentzia osoa, ezin du erabakia gauzatu. Beste instituzio edo elkarte batzuei dagokie gaia, guztiz edo partzialki. Hala ere, gorriz sailkatuta dauden gaiak landuko dira, eta haien artean lehentasunak ezarriko dira. Horrela, udala dagokionari zuzenduko zaio, eskaera ofizial bat eginez proiektua bultzatzeko.

BASAUNDI ORIA ANTXISU

BILERAREN DINAMIKA:

Dinamikarekin hasi aurretik, auzotarrei aipatu zaie, aurreko bileran ateratako kezka, gabezia edo proposamenen bat falta bada, esateko eta apuntatu egingo dela.

Gabezien multzokatzea (berdea, laranja eta gorria) paretan jarri da, ondoren puntuazioa bertan idazteko.

Bileraren dinamika lehenengo bileraren dinamikaren antzekoa izan da. Auzotar bakoitzak minutu pare bat izan ditu, bakarka, kezkei, gabeziei eta proposamenei lehentasunak ezartzeko. Auzotar bakoitzak multzokatze bakoitzari (berdea, laranja eta gorria) garrantziaren arabera 1, 2 edo 3 puntu (3 puntuazio altuena eta 1 baxuena) emateko aukera izan du.

Bakarrik dauden bitartean, forma ezberdinetako gozokiak banatu dira. Talde txikiak egiteko erabili da hori.

Talde txikietan (4-5 pertsona), bakoitzak jarri dituen lehentasunak komentatzeko aukera izan dute. Taldean bozeramaile bat izendatu da, eta pertsona hori izan da taldeak gabezia bakoitzari emandako puntuazioa ozenki adierazi duena.

Bien bitartean, udaleko kideak taldez talde ibili dira, laguntza eskaintzeko, behar izanez gero.

Talde handian jartzean, talde bakoitzeko bozeramailea gabezia bakoitzari jarritako puntuazioa esaten joan da. Talde guztiek denak aipatu arte. Ondoren, puntuazio handiena atera dutenetik txikiena atera dutenera ordenatu ditugu, lehentasuna argi ikusteko.

Bukatzeko, auzotarrek gabezia bakoitzaren inguruan proposamenen bat baldin badute, jaso egin da.

Arlo bakoitzeko, kartulina bat jarri da, ateratzen diren ideiak apuntatuz joateko.

Itxiera:

- Gai zehatzen inguruan bilerak egiten direnean deialdi zuzena egingo zaiela.
- Bilerara etortzeagatik eskerrak ematea.

BASAUNDI / ORIA / ANTXISU

Udalak konpetentzia osoa du eta epe motzean erantzuna.
Es competencia del ayuntamiento y responderá en breve.

	GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes	PROPOSAMENAK/propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones.
18	<ul style="list-style-type: none"> Hiribusaren zerbitzua Servicio del autobús Urbano. 	
17	<ul style="list-style-type: none"> Etxeetan igogailuak jartzeko erraztasunak ematea. Dar facilidades para poner ascensores en los portales. 	<ul style="list-style-type: none"> Bestela, etxebizitza egokitu bategatik dutena aldatzea. Si no se pueden dar facilidades, cambiar la casa por otra que esta adaptada a esta necesidad.
16	<ul style="list-style-type: none"> Oria eta Zelaialdeko haur parkea konpontzea, egokitu eta hesia jarri txakurrak ez sartzeko. Arreglar el parque de Oriá y Zelaialde, adaptarlo y poner una valla para que no puedan entrar los perros 	
15	<ul style="list-style-type: none"> Arratoiak. Ratas 	
14	<ul style="list-style-type: none"> Txakur kaken arazoa. Problemática de los excrementos de los perros. 	
8	<ul style="list-style-type: none"> Hiru hilabeteetan behin dinamika kulturalak auzoan Dinámicas culturales cada tres meses en los barrios. 	
6	<ul style="list-style-type: none"> Etxez etxeko laguntza helduentzat . Ayuda a domicilio para las personas mayores. 	
4	<ul style="list-style-type: none"> Zelaiandeko garbiketa eta lorategietako zaintza ez da ona El mantenimiento de los jardines y la limpieza son escasos 	<ul style="list-style-type: none">
4	<ul style="list-style-type: none"> Helduentzako jantokia (herriarentzat orokorrean, hobe Orián baldin bada) 	<ul style="list-style-type: none">

BASAUNDI / ORIA / ANTXISU

	<ul style="list-style-type: none"> Comedor para las personas mayores (en general para el pueblo, se podría poner en Oria). 	
3	<ul style="list-style-type: none"> Zelaialdeko badenak gaizki daude. Los badenes de Zelaialde están mal. 	
3	<ul style="list-style-type: none"> Mendiko bideak garbitu eta kotxeek abiadura gutxitzeko konponbide bat eman. Limpiar el camino del monte y dar solución a la velocidad excesiva de los coches. 	
2	<ul style="list-style-type: none"> Bertako festak berpizteko laguntzak eskaini. Dar ayudas para reavivar las fiestas del barrio. 	
2	<ul style="list-style-type: none"> Urtean 3 bat batzorde auzoei buruz eta auzoetan izatea. Egindakoak jarraipen bat izatea. Hacer comisiones tres veces al año de los barrios y que sean en los barrios. Hacer un seguimiento de lo que se hace. 	
1	<ul style="list-style-type: none"> Udaleko web orrian, argazki galerian, Oriako argazki gehiago. Poner más fotos de Oria en la galería de fotos de la página Web del ayuntamiento. 	
1	<ul style="list-style-type: none"> Festak sustatzeko Txintxardin-Beltzeko plazan haurrentzat ekintzak, kontzertuak, berbenak.. jarri. Para fomentar las fiestas del barrio utilizar la plaza del Txintxardin Beltz para actividades, conciertos, verbenas... 	
	<ul style="list-style-type: none"> Eliza inguruko barandailak gaizki daude. Las barandillas de los alrededores de la iglesia están mal. 	
	<ul style="list-style-type: none"> Plazaolako parkearen proiektuarekin zer gertatu da? ¿Qué pasa con el Proyecto del Parque de Plazaola? 	
	<ul style="list-style-type: none"> Konpostajerako kutxak jarri. Instalar un equipamiento público de compostaje. 	
	<ul style="list-style-type: none"> Udaletxetik Lasarte-ORIA bi izenak erabiltzen direla bermatzea: 	

BASAUNDI / ORIA / ANTXISU

	<p>bertsoetan, berbenetan, hezkuntza, elkarte... (behitzat udal etxerik diru-laguntzak jasotzen dituztenei)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Garantizar desde el ayuntamiento la utilización de Lasarte-Oria: en los bertsos, verbenas, educación, asociaciones... (por lo menos los que reciban subvencionados). 	
	<ul style="list-style-type: none"> • “Lasarte-Oria informa”-ko argazkia kendu, “Lasarte” bakarrik agertzen delako. • Quitar la foto de “Lasarte-Oria informa”. Solo aparece “Lasarte”. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Oriako Sorgin- Dantza Oriako denez, Oriatik irtetea ez San Pedroetan bakarrik Karmengo festetan ere. • Como la Sorgin Dantza de Oria es de Oria, que salga desde Oria, no solo en San Pedros, también en fiestas del Carmen 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Oztaranetik irteten diren desfile ezberdinak Oriatik irtetea. • Los diferentes desfiles que salen desde Cocheras, que salgan desde Oria. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Udalaren web-orrian Oria sustatzea. 6 argazkitan ez agertzen. • Fomentar Oria en la página Web. En las 6 fotos de la cabecera no sale ninguna de Oria. 	

BASAUNDI / ORIA / ANTXISU

Udalak konpetentzia osoa du baina tamainagatik ezin berehala erantzun.
Es competencia del ayuntamiento pero por el tamaño no puede responder enseguida.

	GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes	PROPOSAMENAK/propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones.
19	<ul style="list-style-type: none"> • Kamioiak Txitxardin beltzeko bidegurutzetik sartzen dira eta egoera larriak sor ditzakete. • Los camiones entran por el camino de Txitxardin Beltz y pueden crear situaciones graves. 	<ul style="list-style-type: none"> • Seinalizazio bat jarri bidegurutze horretan. • Poner una señalización en el cruce..
15	<ul style="list-style-type: none"> • Leku edo plaza bat aterpearekin. • Poner un lugar cubierto o una plaza cubierta. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eliza ondoan dauden lokalak aukera on bat izango litzateke. • Los locales que están vacíos al lado de la iglesia serían una buena opción.
13	<ul style="list-style-type: none"> • Zelaialden jende heldu asko bizi da eta aldapa eta eskailera asko daude • Hay muchas personas mayores en Zelaialde y hay muchas cuestas y escaleras. 	<ul style="list-style-type: none"> • Igogailu bat egitea • Poner un ascensor.
11	<ul style="list-style-type: none"> • Komun publiko gehiago (auzotik biltzen pasatzen diren pertsonentzat) • Más baños públicos. (para la gente que suele ir a andar) 	
9	<ul style="list-style-type: none"> • Basaundiko errepidearen konponketa • Arreglar la carretera de Basaundi. 	
8	<ul style="list-style-type: none"> • Teniseko sare bat jarri Antxisun • Poner una red de tennis en Antxisu. 	
7	<ul style="list-style-type: none"> • Bidegorria. • Bidegorria. 	
7	<ul style="list-style-type: none"> • Udaltzainen aldetik kontrol gehiago: gaizki aparkatutako kotxeak, gauetako zaratak... • Más control por parte de los municipales: coches mal aparcados, 	

BASAUNDI / ORIA / ANTXISU

	ruidos nocturnos...	
6	<ul style="list-style-type: none"> • Pasabide bat ibaiaren bi aldeak konektatzeko • Una pasarela peatonal que conecte los dos lados del río 	
6	<ul style="list-style-type: none"> • Tribunetako eskailerak konpondu eta barandaila bat jarri. • Arreglar las escaleras de tribunas y poner una barandilla 	
5	<ul style="list-style-type: none"> • Museo dinámico eta erakargarri bat jartzea. <p>Adibidez: garai bateko autoen lasterketa, industrializazioa, golf zelaia...</p> <ul style="list-style-type: none"> • Poner un museo dinámico y atractivo. <p>Por ejemplo: carrera de coches antiguos, la industrialización, el campo de golf...</p>	
5	<ul style="list-style-type: none"> • Eraikin munizipalen bat Orian (Museo, kiroldegi...) • Un edificio municipal en Oria (Museo, deportivo...). 	
3	<ul style="list-style-type: none"> • Elizatik Andoain aldera parke falta dago. • Desde la iglesia hacia Andoain no hay ningún parque 	
3	<ul style="list-style-type: none"> • San Pedro festetan auzoan ekintza gehiago egitea. • En las fiestas de San Pedros hacer más actividades en los barrios. 	
2	<ul style="list-style-type: none"> • Anbulatorioko parking-a dohainik denetik bertako auzotarren parking partikularra bihurtu da. • Desde que el parking del ambulatorio es gratis los vecinos lo utilizan como parking particular. 	<ul style="list-style-type: none"> • Anbulatorioko parking-a ordaintzen jartzea • Poner de pago el Parking
1	<ul style="list-style-type: none"> • Udal wifi auzoan jarri. Udal eraikina egiten denerako eta bitartean auzo elkartean Udal wifi-a jarri. • Poner wifi en el barrio. Cuando se ponga el edificio municipal y mientras tanto en la asociación de vecinos. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Oria promozionatzeko plan estrategiko bat • Plan estratégico para fomentar Oria. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Komertzio txikia sustatu. • Fomentar el pequeño comercio. 	

BASAUNDI / ORIA / ANTXISU

	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxe barruan jangela jartzea eta herrian dagoen beste jangelaren prezio berdina izatea. • Poner comedor en el colegio y que valga lo mismo que el otro comedor del pueblo. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Batzuen ustez argi gehiegi dago besteen ustez ez • Algunos creen que hay demasiada luz y otros que hay poca 	<ul style="list-style-type: none"> • Argiztamenaren inguruan ikerketa bat egin. • Hacer un estudio de luminosidad.
	<ul style="list-style-type: none"> • Bigilantzia falta Plazido Mugika Plazan. • Falta de vigilancia en la Plaza Plazido Mugika 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Basaundi 12-11 dauden paretetako belarrak moztu (orokorrean Orián dauden pareta guztietan) • Cortar las hierbas de Basaundi 12-11 (en general en todas las paredes de Oriá). 	<ul style="list-style-type: none"> • Marrazki, graffiti lehiaketa bat egin pare hauetan. • Un concurso de pintura, graffiti en estas paredes

BASAUNDI / ORIA / ANTXISU

Udalak ez du konpetentzia osoa
No es sólo competencia del ayuntamiento.

	GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes	PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones.
37	<ul style="list-style-type: none"> Trena Oriaraino iristea (beste herriekin konektatu, Andoain; Madrid-Irun konexioa...) Que el tren llegue hasta Oria (conexión con otros pueblos, Andoain, Madrid-Irun...) 	
30	<ul style="list-style-type: none"> Ospitaleetako geltokia Orian ere izatea. Poner la parada de los Hospitales también en Oria. 	
18	<ul style="list-style-type: none"> N-1-eko pantailak auzoraino jartzea Poner las pantallas de la N-1 hasta el barrio 	
16	<ul style="list-style-type: none"> Ez dago dirua ateratzeko kutxazainik No hay ningún cajero para sacar dinero. 	<ul style="list-style-type: none"> Entitateren batekin hitz egin Oria aldean bat jartzeko.. Hablar con alguna entidad para poner un cajero.
6	<ul style="list-style-type: none"> Oztaran ikastetxea irekitzea Haur eta Lehen Hezkuntzako adinentzat. (honek bizia emango dio auzoari) Poner Educación Primaria en Oztaran (esto le dará vida al barrio). 	
5	<ul style="list-style-type: none"> Fabrika batean egurra erretzeko baimena bakarrik dute eta egurra era berniza erretzen dute (Azpeitia e hijos). En una fábrica tienen permiso para quemar madera y queman madera con barniz (Azpeitia e hijos). Fabrika baten gainean antena telefoniko handi bat dago, zer gertatzen da horrekin? (Gema empresa) Encima de una fábrica hay una antena de telefonía, ¿Qué pasa con eso? (Gemma empresa). 	

BASAUNDI / ORIA / ANTXISU

5	<ul style="list-style-type: none"> • Eliza ondoko ibaia oso zikina dago • El río que esta al lado de la iglesia esta muy sucia. 	
2	<ul style="list-style-type: none"> • Gasolineran hidrokarburoak usten dituztenerako kontrola. • Poner control en la gasolinera para cuando se vacían los hidrocarburos. 	
1	<ul style="list-style-type: none"> • Industrialdea hutsik geratzen ari da. • Industrialdea se esta quedando vacía 	
1	<ul style="list-style-type: none"> • Diputazioari bere liburuxkan Lasarte-Oria aipatzeko eskatu • Pedir a diputación que salga Lasarte-Oria en el libro de turismo 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Hipodromoa Lasartekoa dela sustatzea. • Fomentar que el Hipódromo es de Lasarte. 	